

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 1417

*386/2017 EBAZPENA, martxoaren 2koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Edurne Omaetxebarria Legarra andrea Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari medikoaren lanpostua betetzeko izendatzen duena.*

Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari medikoaren lanpostua betetzeko deialdia aztertu da; deialdi hori Zuzendaritza Nagusi honen urtarrilaren 25eko 81/2017 Ebazpenaren bitartez egin zen, eta 2017ko otsailaren 9ko EHAAn argitaratu (28. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, bai eta bere baldintza profesionalak curriculum vitaean jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak aztertuta, ikusi da Edurne Omaetxebarria Legarra andrea deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Edurne Omaetxebarria Legarra andrea Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari mediko izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek 2017ko martxoaren 6tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 2a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.